

 kutxabank	<b>ORDAINKETEN KUDEAKETA INTEGRALA</b>	EPIGRAFEA <b>15</b>
	Egun honetatik indarrean: 2019.01.08	. orria 1(e)tik

### 1. Confirming-en irekiera-komisioa.

Kontraturako baimendutako hasierako arrisku-mugaren gaineko % 2,00, kontratuaren titularrak kontratua formalizatzean, aldi bakarrean, kobratzekoa. 100 euroko gutxienekoa.

### 2. Confirming-kontratua luzatzeagatiko edo berritzeagatiko komisioa.

Bezeroarekin formalizatutako arrisku-lerroaren urteko berrikusketak edo berritzeak kontraturako baimendutako arriskuaren egungo mugaren gaineko % 2,00; urtero kobratuko zaio titularrari berritzea egitean. 100 euroko gutxienekoa.

### 3. Sortaren kudeaketagatiko komisioa.

% 0,25 faktura bakoitzaren gainean, kontratuaren titularrari ordaintzeko kudeatzeko sorta jasotzen den bakoitzean kobratzekoa, faktura bakoitzeko 3,00 euroko gutxienekoarekin.

### 4. Ordainketa dokumentuak igortzeagatiko komisioa.

- Transferentziak: ikusi 82 epigrafea.
- Banku txekeak: ikusi 3 epigrafea.
- Helbideratutako ordainketak: dokumentu bakoitzaren zenbatekoarekiko %0,2 eta 1,80 euroko gutxienekoarekin dokumentu bakoitzeko.

### 5. Hornitzaileari kobrantza aurreratzeagatiko komisioa.

Hornitzaileari aurrez ordaindutako faktura bakoitzaren % 0,50, hornitzaileak faktura baten alde aurreko kobrantza kudeatzen duen bakoitzean kobratzekoa, faktura bakoitzeko 4,00 euroko gutxienekoarekin. Komisio hori hornitzaileari kobratuko zaio, kudeatutako fakturen guztizko zenbatekoa murriztuta, aurrerapena hornitzaileak hala eskatuta egiten denean, betiere.

### 6. Gertakariengatiko komisioa.

Gertakari bakoitzeko 12,00 euroko komisioa aplikatuko da.

Gertakarizat joko da ordainketa egiteko eskatu duenak aginduta egin beharreko ordainketaren egoerari eta datuei buruzko aldaketa oro.

### 7. Mugaeguneratutako edo zorpeko zehatz posizio zordunen erreklamazioagatiko komisioa

Mailegua edo kreditua ez ordaintzeagatiko egoera bakoitzean edo ageriko kontuan gertatutako posizio zordun bakoitzeko 35,00 €-ko zenbateko finkoa jasoko da erregularizatzeko eskatzen duen idatzizko lehen erreklamazioa sortzen denean.

- 1. oharra** Posta-gastu gisa jasoko dira eskaintza edo ordainketarako dokumentu bat bidaltzen edo igortzen den bakoitzean sortutako gastuak une bakoitzean indarrean dauden posta-tarifen arabera. Era berean, sortutako telefono eta abarretako gastuak jasoko dira.
- 2. oharra** Fede-emaile publikoaren esku-hartzeagatiko gastuak bezeroaren kontura izango dira. Behar bezala justifikatuta egon daitekeen kanpo-izaerako beste edozein kontzeptu bezeroari jasanaraziko zaio osorik.